BIZITEGI ERAIKINA — MIRAKRUZ 28 B

D MAILA





Lucas Alday, 1919

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, beheko solairua eta jatorrizko sei goiko solairu dituena, azkena mantsarda modukoa eta 1920ko gain-gaineko jasodura bat, oso atzeraemana. Kareharriz estalitako fatxada, beheko solairuan erliebe bat duena eta zeramikaz estalia eta harlanduzko bao azpadurekin goiko solairuetan. Hormigoizko begiratokiak atariko ardatzean eta Mirakruz 28 A ondoko eskuineko ertzean, harekin jatorrizko proiektu komuna konpartituta, eta esku hartzeko unitate bat osatuta.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Erregimen espezifikoa.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 7. solairuko jasodura atzeraemana.
B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: Harlanduzko elementuak eta beheko solairuko jatorrizko estaldura.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
- Mirakruz 28 A-28 B esku hartzeko unitatearen barruan egotearen ondoriozkoak.
- Atariaren eskuinetan kokatutako beheko solairuko baoak lehengoratzea, horiek konfiguratuta eta estalita.
- Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, hala badagokio.